

# Inbertsio sozialaren argi-ilunak: egokia ote Arrisku Sozial Berriei erantzuteko?

**Amaia Inza Bartolomé, M<sup>a</sup> Mar Lledó Sainz de Rozas**

**Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakasleak, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)**

Ongizate Estatuaren eraikuntza duela hamarkada asko definituriko arazoan gainean egin bazen ere, gaur eguneko egoerak oinarri haiek birdefinitzera garamatza. Krisi ekonomikoak eta agertu diren Arrisku Sozial Berriek, besteak beste, ongizatearen jasangarritasuna kolokan jartzen dute. Inbertsio sozialaren teorialariek horren diagnosi doitua eskaintzen dute. Horien ustetan, lan-merkatuan lehiakorak diren gizabanako egokiak behar dira, giza kapitalean bitzta osoan zehar inbertituko dutenak. Estatuaren paperak murriztagoa izan beharko luke eta politika sozialak ekoizpena bideratua. Estrategia hori, luzaroan martxan egon den merkantilizazio neoliberalaren dinamikaren gainean eraiki da eta eskubide sozialen etorkizuneko garapenean berebiziko garrantzia du.

Testu honek inbertsio sozialaren estrategiaren inguruko ildo garrantzitsu batzuk azaltzen ditu, eta Ongizate Estatuaren etorkizuneko garapenerako kontzeptu nabari batzuen inguruan gogoeta proposatzen du.

GAKO-HITZAK: Ongizatea · Arrisku Sozial Berriak · Inbertsio Soziala.

## **Ambiguities about social investment: is it a good answer to new social risks?**

Welfare State was built on problems defined several decades ago, but those roots must be redesigned. The economic crisis and New Social Risks, among other, make welfare unsustainable. Social investment theorists launched a sharp diagnosis of this situation. In their opinion, labour markets need competitive people, who invest in human capital along their lives. States must diminish its power, and social policy has to be market oriented. This strategy is grounded on the neoliberal commodification dynamic, and it has a meaningful importance on the development of the social rights.

This paper explains some important issues about social investment strategy and proposes a reflection about some important concepts about the future development of the welfare state.

KEY WORDS: Welfare · New Social Risks · Social Investment.

*Jasotze data:* 2015-04-30

*Onartze data:* 2015-06-24

## 1. Sarrera

Gizarte postindustrialak sortzen dituen baldintza berriek desmerkantilizazioan oinarrituriko politika sozialetatik aldentzen gaituzte. Ongizate Estatu keynestarraren arabera aseguruaren diseinuak herritarrek babesten zituen arazo jakin batzuetatik, gaixotasunen, langabeziaren edo zahartzaroaren aurrean, adibidez. Merkatuaren dinamikatik at bizi ahal izateko beta ematen zuten eta, era berean, eskubide sozialen enborra eraiki zen.

Egun, arazo horiei erantzun egokia emateak ezinezkoa dirudi. Krisia dela eta politika tradizionaletara bideraturiko aurrekontuen mozketek, eta arazoan aniztasunak, ongizatearen oinarriak kolokan jarri dituzte.

Are gehiago, Arrisku Sozial Berriek (ASB) gizartearen modernizazio-prozesuak sorturiko pobre izateko aukerak biderkatu dituzte. Ongizate Estatu keynestarraren ikuspuntutik, gizabanakoak babesteko bidea desmerkantilizazioa zen; merkatuaren injustizien aurrean gizabanakoen segurtasuna lortzea zuen helburu. Pentsamendukorronte liberalaren ustetan, aldiz, Estatuak merkatuko injustizia horiei erreparatu gabe eskain dezake segurtasuna (segurtasun fisikoa, nazioaren mugena, etab.). Horregatik, erantzukizun indibiduala azpimarratu eta giza kapitalean inbertitzera bultzatu nahi ditu gizabanakoak, lan-merkatuan euren kabuz molda daitezen.

Era berean, gizarte orekatu eta produktiboak sortu nahi dira; politika soziala oraindik hazkunde ekonomikorako aurrebaldintza da, pobrezia eta ezberdintasunak gutxitzen dituelako eta hazkunde ekonomikoa bultzatzen duelako. Dinamika horretan baldintza nagusia «konpontzea» baino gehiago —arazoez eztanda egiten dutenean diru publikoa bideratzea—, bizi garen ezagutzaren gizartean aurrez «prestatzea» izango litzateke, bizitzan zehar gerta daitezkeen lan-merkatuarekiko arazoak ekiditeko asmoz, hau da, lan-merkatutik lortzen diren soldaten arabera bizi ahal izateko, Estatuaren zerbitzu edota transferentzien beharrik izan gabe.

Aurreko ikuspuntu hori XX. mendeko 90eko hamarkadan erreferentzia izan den «inbertsio sozial»aren kontzeptuarekin laburbildu genezake. Etengabe aldatzen ari den ordena sozial eta ekonomikoari erantzun nahi dio. Ezagutzan oinarrituriko ekonomia globalizatuan lehiatu beharra dago, arrakasta sortzen da lan-indar doitu, prestatu eta hezia dagoen lekuetan eta hori parte-hartze aktiboa sustatzen duten ongizate-politikekin uztartu behar da, jendeak arrisku berriei aurre egin ahal izateko (Perkins *et al.*, 2004). Babes sozialean egiten diren gastu pasiboak alde batera utzi eta inbertsio sozialek «gizarte aktiboa» eta «herritartasun aktiboa» sortuko dituzte (Jenson eta Saint-Martin, 2006). Inbertsio sozialaren teorikoen ustetan, gastua etorkizunean onurak ekarriko dituen kontsumoa da. Estatuak erantzukizuna ere badute, ordea, merkatuen diru-sarrerak familien beharrik asetzeko nahikoak ez direnean.

Lan honetan, Ongizate Estatuaren oinarriak aldarazten dituzten gakoak azaldu ondoren, Arrisku Sozial Berrien eta horiek asetzeko planteatu diren inbertsio sozialaren neurrien nondik norakoak azalduko dira. Bukatzeko, azken elementu horien arteko harremanari buruz zenbait ideia eskainiko dira gogoeta edo erreflexio gisa.

## 2. Gerra osteko Ongizate Estatuaren oinarriak kolokan

Ongizate Estatuak dituen presioen artean daude, adibidez, estatu bakoitzeko berezko erronkak diren aldaketa demografikoak (populazioaren zahartzea eta jaiotza-tasa baxua), familien eraketan jazotako aldaketak eta lan-merkatuak inposatzen dituen eskakizunak. Era berean, globalizazioak eragindako nazioarteko lehiakortasunak aldaketa saihetsezinak dakartza eta Europar Batasunak ezarritako baldintzek estatuaren barne-politiketan norabide jakin bati jarraitzeko agintzen dute. Beck-en aburuz (1999), lanaren eta herritartasunaren arteko harremanean sustraiturik zegoen «lanaren gizartea» «arriskuaren gizarteak» ordezkatu du, eta bertan lan-ziurgabetasuna eta prekariedade gailentzen dira. Horren guztiaren ondorioz, Estatuak bere burua birdefinitu behar izan du, aktiboago bilakatu da eta lan-merkatuan txertatzera bideratutako laguntzak eskaintzea du helburu garrantzitsuenetariko bat.

Esping-Andersen-en (2002) analisiaren arabera, gaur egun dugun babes sozialeko sistemek ezagutzen oinarrituriko ekonomien lehiakortasuna eta enpleguaren hazkundera bultzatu beharrean, oztopatu egiten dituzte. Arrisku eta behar berriei erantzuteko ez dira aproposak. Autore horrek dioenez, (2001: 136), soldata baxuak eta enplegu prekarioa ezin badira ekidin, epe motzeko efektuak leuntzen saiatu beharko genuke, egoera horiek luzaroan iraungo balute, jendea ezingo litzatekeelako tranpatik irten. Eskubide sozialen muinak tranpa horien kontrako bermea izan beharko luke.

Ongizate Estatuak, egun, biderkatzen doazen erronken, diru-sarreraren murriztearen eta lehiakortasuna gurtzen duten politiken arteko bidegurutzean dago. Ongizate Estatuak aktibo eta prestakuntza-eskaintzaile bilakatu behar izatearen arrazoiak hauxe da: industria-langabezia ziklikoa zenean, zentzua zeukan aseguru kolektiboak epe jakinetan bermatzeak, baina langabezia estrukturala bada, gaur egun bezala, langabeziagatik ematen diren prestazioak ez dira nahikoak. Horiek ahalmenak sortzen dituzten zerbitzu publikoen osagarri izan behar dute, bizitzan zehar gerta daitezkeen arazoei aurre egin ahal izateko (Hemerijck, 2011; Hemerijck, 2012: 52).

Aldaketa sozioekonomikoek sortzen dituzten behar berriei erantzuna emateko, Arrisku Sozial Berrien (ASB) politikak edo «politika sozial postindustrialak» beharrezkoak lirateke, beraz. Bonoli-ren (2007: 501-2) ustetan, gerraosteko Ongizate Estatuak industrializazioaren ondorioz sortutako ezegonkortasun sozialari aurre egiteko eraiki zen, baina egun, Arrisku Sozial Berrien inguruko politikak beharrezkoak dira erronka berriei erantzuteko. Horregatik, politika sozialak herritarren ekoizpen potentziala mobilizatu beharko luke, ASBak gutxitzeko asmoarekin, hala nola epe luzeko langabezia, langile pobreak, ezegonkortasun familiarra eta lan-merkatuan parte hartzeko aukera falta, zaintza-eginbeharrak edo zaharkituriko abileziak direla-eta (Vandenbroucke *et al.*, 2011; Hemerijck, 2012: 51).

Ongizate Estatu zaharrean, politikak gizonezko langile helduei eta, oro har, adinduei bideratuta zeuden batez ere. Diru-transferentziak adina, langabezia, gaixotasun eta ezgaitasunagatik sortutako arriskuengatik ematen ziren. Etorkizunean beharrezkoa izango den Ongizate Estatu berriak askotariko zerbitzuak eskaini beharko ditu, gizabanakoaren diru-sarrerak handitzera bideraturiko hezkuntza eta

prestakuntza, baita familiaren zaintza eta lana uztartzeko laguntzak ere, besteak beste (Bonoli, 2006; Taylor-Gooby, 2004). Ez dago Ongizate Estatu berri horren «bezero» eredugarririk, gizabanakook Ongizate Estatura jo dezakegu bizitzaren epe ezberdinetan: lanean ari direnen seme-alabak, prestakuntza behar duten helduak, haur txikiak dituzten gurasoak edo laguntza behar duten adinduak izan daitezke, adibidez (Huber eta Stephens, 2006).

Neoliberalismoak inposatzen dituen mugek zeresana dute Ongizate Estatuaren berregituraketan. Neoliberalismoa globalizazioaren «estrategia hegemonikoa» da (Jessop, 2008), eta horren arabera, nazioarteko gobernu eta instituzioek merkatuaren logikarekin bat datozen praktikak jarri beharko dituzte martxan; lehiakortasuna bultzatzea eta merkatu eta sektoreak liberalizatzea ezinbestekoa da logika horren pean (Cerny, 2008). Estatuak berak ere, merkantilizazioa bultzatu ez ezik, bere egitura eta ekintzak merkantilizatzeko joera izango du, baita negozioei onuragarri zaizkien ongizate-zerbitzuak eskaintzekoa ere (Jessop, 2008).

### **3. Zeintzuk dira Arrisku Sozial Berriak?**

Oro har, gizarte postindustrialean, lau prozesu dira garrantzitsuak: emakumeen lan-merkatuzatzea; adinduen kopuruaren hazkundeak eragin handia du pentsioetan eta osasun-sisteman; lan-merkatuko aldaketek (prestakuntzarik gabeko lanen proportzioaren murrizketa, herrialdeen arteko lehiakortasunaren areagotze eta hazkundera) hazkunderaren eta enpleguaren arteko harremana zaildu dute, ondorioz, hezkuntza-maila baxua dutenen artean gizartetik baztertzeko arriskuan eragiten dute; Ongizate Estatu zaharraren presioei aurre egiteko zerbitzu pribatuen hazkundera, Estatuaren gastua txikitzeko ahaleginen ondorio (Taylor-Gooby, 2004). Bonolik (2006) beste era batera laburbiltzen ditu: diru-sarreraren eta lan-merkatuaren ezegonkortasunen ondorioz, zaila da bizimodua mantentzea, batez ere hurrak dituzten familientzat, eta are zailagoa partaide bakarreko familientzat. Bi soldata dutenek ere gero eta arazo handiagoak dituzte lana eta familia-bizitza uztartzeko. Egoera horiek epe postindustrialean oso ohikoak dira eta Ongizate Estatuaren egitura tradizionalak ez dituzte ondo asetzen. Gainera, ezagutzaren ekonomiak arriskuak biderka ditzake, eta prestakuntza urriagoa dutenek gehiago dute galtzeko. Honela sailkatzen ditu autore horrek ASBak:

- Lana eta familia-bizitza uztartzea: emakumeen laneratzeak familian zegoen lan-banaketa aldatu du. Etxekoandreek betidanik dohainik egin duten etxeko lana eta haurren zaintza aldarazi ditu. Zerbitzu horiek lortzeko familiek egin beharrekoak ongizatean galera bilaka daitezke, adibidez, gurasoek lanorduak gutxitu behar badituzte hurrak zaintzeko.
- Guraso bakarreko familietan: diru-sarrera nahikoak lortzea eta haurren zaintza egokia lortzeko zailtasunak.
- Familiartekoren bat laguntza behar duen adineko pertsona bada edo ezintasunen bat badu: etxekoandreek egiten zuten zaintza. Emakumeen laneratzearen ondorioz, zerbitzu hori kanpotik lortu behar da.

- Maila baxuko edo abilezia zaharkituak edukitzea. Lana galtzeko arriskuak biderkatzen dira eta lan ziurra lortzeko ezintasuna handitu.
- Gizarte-segurantzak eskaintzen duen babes eskasa. Gaur eguneko eskemak antzinako lan-merkatura doiturikoak dira, baina lan-profil berriak direla-eta, egitura osoa aldatu beharko litzateke.

Analisi-ildo horren arabera, bizitza ona edukitzeko eskakizunak aldatu egin dira. Nahikoak ez diren prestakuntza edo errekurtsio kulturalak ez dituztenek diru-sarrera eskasak, langabezia edo prekarietatea betirako jasango dituzte. Hori dela-eta, bizitza osoa baldintza dezaketen tranpak ekiditeko bideak eskaini beharko lirateke. Horien artean, etengabeko hezkuntza funtsezkoa litzateke; bizitzan eduki ditzakegun aukerak norberak ikasteko dituen abileziak eta giza kapitala metatzearen ondorio lirateke (Esping-Andersen, 2002).

Aipagarria da giza kapitalaren metatzean egiten duten indarra. Hezkuntzak berebiziko garrantzia dauka, bizitzan eduki ditzakegun aukerak, norberak ikasteko dituen abilezien ondorio baitira, ekonomia dinamiko eta konpetitiboia ziurtatzeko alde batetik, eta etorkizunean gerta daitezkeen lan-merkatuaren arazoak aurreikusi eta saihesteko bestetik. Asmorik behinena, Arrisku Sozial Berri hauei lan ordainduen bidez aurre egitea litzateke.

ASBen aterkiaren pean garatutako politika sozialen diseinu eta gastuetan egindako berrikuntzak testuinguru askotan dira komunak, Europar Batasunaren barnean batez ere. Babes sozialean egindako gastu pasiboa atzean utzi eta inbertsio sozialak eginda, «gizarte eta herritar aktiboak» sortuko dituzte. Oinarri horiek herrialde askotan errotu dira (Jenson eta Saint-Martin, 2006).

#### **4. Inbertsio soziala: Arrisku Sozial Berrien soluziobidea**

Inbertsio sozialaren planteamenduak Anthony Giddens-en idatziekin hartu zuen indarra 90eko hamarkadan. Sozialdemokrazia eraberritzerako «Hirugarren Bide»aren (1999) proposamenaren barnean, zenbait ongizate-prestaziok ondorio doilorrak sor zitzaketela planteatu zuen, eta, horren ondorioz, arriskuen eta segurtasunaren arteko harremana aldatzea funtsezkoa zela. Gainera, arrisku horien aurrean erantzukizun handiagoa duen gizartea sortu behar da. Gaitzak gertatu ondoren egiten diren ekintzak ordezkatzeko, giza kapitalean inbertituko duten politikak bideratu beharko dira. Are gehiago, leloak «erantzukizunik gabeko eskubiderik ez» izan beharko luke. Beste autore batzuek «garapen sozial» (Midgley, 2001) izenarekin laburbildu dituzte antzeko ideiak. Politika sozialaren muinak ekoizpen eta giza kapitalean eginiko inbertsioan egon beharko luke, birbanaketa eta kontsumoan baino gehiago. Horrek, ekonomian eragina duten errekurtsioak sortzea du helburu.

Bestalde, politika sozial ekoizlearen ideia 1997. urtetik aurrera hasi zen erabiltzen Europako Komisia; 1999ko Amsterdameko Tratatuan politika soziala inbertsio bezala bideratzea eta helburu sozial eta ekonomikoak uztartzeko beharra nabarmendu zuen. Ondoren, inbertsio sozialaren ideiak eragin handia eduki zuen Europar Batasuneko Lisboako estrategian (Europako Komisia, 2001), non

ezagutzen eta inklusio sozialaren estrategian oinarrituriko merkatu lehiakorren ideia bultzatzen zen, neoliberalismoaren esanetatik aldentzeko asmotan. Inbertsio sozialaren erroak Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundean (ELGA) aurki ditzakegu (ELGA, 2003, 2006).

Oro har, inbertsio soziala etengabe aldatzen ari den ordena sozial eta ekonomikora egokitzeko beharraren emaitza da. Globalizaturik dagoen ezagutzaren ekonomian lehiatzeko erronkei erantzuteko prest dago. Helburu hori lan-indar doitu, prestatu eta heziarekin lortzen da, eta parte-hartze aktiboa bultzatzen duten ongizate-politikek populazioa prestatzen dute arrisku berriei aurre egiteko (Perkins *et al.*, 2004).

Aldaketa horren muinean dagoen ideia honakoa da: arrisku sozial eta ekonomikoak direla-eta, politika sozialak gizabanakoei errekurtsioak eskaini behar dizkie, arrisku horiek eztanda egin ondoren diru-sarrerak eman ordez. Hau da, politika sozialek ekoizpenerako faktore izan beharko lukete, garapen ekonomikorako eta enplegua sortzeko funtsezkoak. Inbertsio sozialaren ikuspuntuak giza kapitalaren garapenean inbertitzen duten politikak nahi ditu (haurren zaintza eta hezkuntza, bizi osoan zeharreko hezkuntza eta prestakuntza) eta giza kapitalaren erabilera efizientea egiten laguntzen dute (enplegu-politika aktiboak, segurtasun malgua bultzatzen duten lan-merkatuaren arautze era konkretuak eta babes sozialeko instituzioak). Horrekin batera, inklusio soziala defendatzen du (sistematik kanporatuak izan diren lan-merkaturatzea bermatzeko asmoarekin) (Morel *et al.*, 2012: 2, 9)<sup>1</sup>.

Inklusio sozialaren helburuarekin batera, belaunaldi arteko pobrezia txikiagotzeko asmoa dago, baita populazioa gaur eguneko ekonomien lan-baldintza aldakorretarako ondo prestatua dagoela ziurtatzea ere (hezkuntza-eskaera altuagoak; enpleguan ziurgabetasuna; enplegu era ezegonkorragoak). Gauzak horrela, familia eta gizabanakoek beren buruekiko erantzukizuna edukiko lukete merkatu diru-sarreraren bitartez, eta errazagoa litzateke babes sozialen erregimenentzat mehatxuak diren gizarte zaharkituei aurre egin eta dependentzia-tasa altuak murriztea (Jenson, 2009).

Hala ere, inbertsio sozialarentzat, ezberdintasun-tasa altuak, soldata baxuak, lan ezegonkorra eta behin-behineko arazoak ez dira arazo larriak: larriagotu egiten dira gizabanakoak bertan ihes egiteko aukerarik gabe murgilduta badaude, edo legearen kontrako portaerak badaude. Garrantzitsu bilakatzen dira etorkizuneko aukerak apurtzen badituzte edo gaur eguneko kohesio soziala urratzen badute. Beraz, gaur eguneko berdintasuna baino gehiago, inbertsio sozialeko Estatuak etorkizuneko arrakastarako aukera-berdintasunak lortu nahi ditu. Estatuak prebentiboak izan behar dute; arazoari aurre egin behar diote geroago ondorio larriagoak eduki baino lehen. Inbertsio sozialak gizarte-berdintasunaren alde barik, kanporatze sozialaren kontra borrokatzen du, beraz garai jakin batean pobrezia-egoeratik pasatzea «onargaria» litzateke (Jenson eta Saint-Martin, 2003: 91-92).

---

1. Politika soziala ulertzeko era hau, epe ertain eta luzera begira dago, haurrak oinarri hartuta eta giza kapitalean eta familietan inbertsioak eginik ezagutzen oinarrituriko etorkizuneko ekonomiarako prestatzeko. Horrela, babes sozialez aparte beste helburu batzuk ere baditu politika sozialak: ezbeharren aurkako gastua ekidin eta gaitasunetan inbertsioak handitu beharko lirateke (Hemerijck, 2011).

Ikuspuntu horren arabera, lana gizabanakoaren ongizatea biderkatzeko bidea da, eta gizartearen ongizatea eta kohesioa lanean oinarritzen dira. Horiek daude ASBen politiken gastuen atzean, eta aktibazio- eta inbertsio-estrategiak bezala izan dira gorpuztuak (Jenson eta Saint-Martin, 2006: 443; Perkins *et al.*, 2004). Behin-behineko lanak ugariak badira, «segurtasun aktiboak» edo «zubi sozialak» izango dira, eta horiek bizitzak erraztu egin ditzakete. Gainera, zaharragoak diren langileekin egiten den inbertsioak, erretiro malgua ziurtatzen dutenak, efektu makroekonomiko positiboak dakartza (Vandenbroucke *et al.*, 2011).

Inbertsio sozialaren aplikazioari buruz, zenbait puntutan akordioa behar da (Vandenbroucke, 2011; Vandenbroucke *et al.*, 2011):

- Inklusio- eta emantzipazio-zirkulu bertutetsuek sendoak izan behar dute. Ikuspuntu hori bizitza-aukeretan eta luzaroan mantendu beharrekoa da; hau da, politika horren pauso denak mantendu behar dira, haurtzaroko hezkuntzan, bizitza osoan zehar egindako prestaketan eta zahartze aktiboan.
- Estrategia hori ez da merkea eta errekurso-iturri garrantzitsuak beharko ditu. Gaur eguneko krisi ekonomikoa, beraz, mehatxu arriskutsua da inbertsio sozialerako.
- Berdintasuna eta kalitatea. Zerbitzu sozialen kalitatea inbertsio sozialaren parte da. Inbertsio sozialaren ondorioz inklusiozko zirkulu bertutetsuak sortzeko, inbertsioak berez gizartearen ezberdintasunak murriztu beharko lituzke. Zerbitzu sozialek ahalmen-sortzaileak izan beharko lukete. Bestalde, lan-merkatuaren politika aktiboak inbertsio sozialeko elementuak izango dira, hobekuntza soziala badakar soilik. Berdintasuna bilatzen duten gizarteak inbertsio sozialaren politikak martxan jartzeko orduan egokiagoak dira; bestalde, diru-sarreraren ezberdintasunak murrizteak eginkizun funtsezkoa bete beharko luke inbertsio sozialean. Horregatik, Ongizate Estatu aktiboaren oinarriak «inbertsioaren estrategia» eta «babesaren estrategia» dira, biak ere osagarriak.
- Eskaintzaren aldeko estrategia beharrezkoa da; gobernantza makroekonomikoak eta arautze finantzarioak ezin dute ordezkatu, horien barne egon behar du, guztien artean ekonomia errealearen hazkunde iraunkor eta orekatua oinarritu dezan.
- Errekurtsoak eskasak direnez, efizientzia oinarritzakoa da. Prestakuntza baxuko lanak oraindik garrantzitsuak dira gure gizarteetan, baina populazio osoak du «ondo prestaturik» egoteko eskubidea.

Zenbait autorearen aburuz, LEGO™ deritzon paradigmatikaren hasiera izango litzateke. Keynesianismo teorikoaren zirkulu bertutetsuaren bilatzearen antzekoa da, zikloen aurkako gastu soziala ekonomiaren hazkunderako oinarri beharrezkoa zen garaian legez. Neoliberalismoa gailendu zen hamarkadetan, aldiz, gastu soziala funtzionamendu ekonomiko egokirako oztopoa zen. Zenbait ideia komun inguruan dagoen adostasun horrekin (LEGO™ paradigmaren jaso) berriro uste da ekonomia osasuntsua edukitzeko, politika soziala oinarri baliotsua dela, nahiz eta

gastu eta programa-erak keynestarrak ez izan (Jenson eta Saint-Martin, 2006: 435). Paradigma egikaritzeko hainbat era badaude ere, politiken ikuspuntu berezi horrek funtsezko oinarri hauek ditu (Jenson, 2003; Jenson eta Saint-Martin, 2006: 443):

- Arrisku Sozial Berrien aurrean Estatuak eskaini behar duen babesa. Ezagutzaren ekonomian oinarrituriko arrisku berriak dira, eta segurtasuna lortzeko bidea bizi guztian zehar hezi eta prestatzea ezinbestekoa da. Hala ere, babes sozial tradizionalak ere mantendu behar dira, pentsioak adibidez beharrezkotzat jotzen dituzte.
- Kutsu liberala duen aukera-berdintasunaren ideia sendotzen da. «Kontsumoa» barik «inbertsioa» defendatzen da. Behin-behineko ezberdintasunek ez dute garrantzi handirik, epe luzekoak eta pobrezia ezartzen dituen tranpak, ordea, berebizikoa. Haurren pobrezia, adibidez, arazo larria da, etorkizuna definitzen duelako.
- LEGO™ ereduak eskubide sozialak kanporatze sozialen aurkako berme legez planteatzen ditu eta gizarte aktiboa nahi du.
- Etorkizunera begiratzen duen ikuspuntua da.
- Gizarte aktiboak onura kolektiboak dakartza.

Zenbaiten ustetan (Vandenbroucke *et al.*, 2011; Hemerijck, 2012: 50), inbertsio soziala ikuspuntu keynestarrarekin bat dator, politika sozialak hazkunde, lehiakortasun, aurrerabide sozial eta erresilientzia politikoa areagotzen dituelako. Ekonomia indartsuak Ongizate Estatu indartsua behar du. Babes sozialean eginiko gastuek makroekonomiaren orekatzaile indartsuak dira, atzeraldietan eskari efektiboa sendotzen duelako. Talde ahulenak aurrerabide ekonomikotik at uzteak, giza kapitala alferrik galarazten du, baita kohesio soziala kaltetu ere.

Hemerijck-en (2011) ustetan, inbertsio sozialaren paradigmen oinarri bateratzailea, duen Estatuaren teoriaren ikuspuntua da. Neoliberalismoaren estatu-teoria negatibotik aldentzen da eta, bertan, politika publikoa familia eta lan-merkatuen sostengu funtsezkoa da. Ez dute konfiantza handirik merkatuen efizientzian eta bizitza osoan zehar birbanaketa lortzeko mekanismo kolektiboak beharko lirakeela dio.

## 5. Inbertsio sozialaren argi-ilunak

Nahiz eta gizabanako eta familiek beren giza kapitalean inbertitzea eskatu, Estatuak ere badu erantzukizunaren parte, haurren zaintzarako zerbitzuak eskaini behar ditu, eta diru-sarreraren transferentziak burutu, familiaren beharrak asetzeko merkatu-sarrerak nahikoak ez direnean (Jenson, 2007). Belaunaldi arteko pobrezia eteteko asmo sendoa eduki behar du, baita babes sozial tradizionalagoa nahi duten programak ere, inbertsio soziala ez delako babes sozialaren ordezkoa. Are gehiago, diru-sarreraren babes minimoa «inbertsio sozial efektiboaren aurrebaldintza da» (Hemerijck, 2011). Inklusio sozialaren ideia, ahul eta abantailarik gabekoei laguntzea, gizarte aktiboaren diseinuarekin bat dator; bizitza osoan zehar prestatzearen eta ikastearen estrategia herritarren malgutasuna handitzeko bidea da, parte-hartze ekonomikoa eta inklusio soziala lortzeko (Perkins *et al.*, 2004).



Hala ere, politika sozialari erreparatuta, ikuspuntua berria da populazioaren atal batzuei bideratuta daudelako bakarrik, ez dute lehen zuten desmerkantilizazio-boterea, hau da, herritarrak merkatuaren bidegabekerietatik babesteko ahalmena. Horrez gain, estrategia horrek eduki ditzakeen emaitza positiboak epe luzean bakarrik ikus daitezke. Gainera, gaur egun epe luzeko aldaketa instituzionalak baino gehiago, krisiari aurre egiteko politikak jartzen dira martxan, ez dago lekurik aldaketa instituzional sakontzat, eta, gainera, krisiak gizartearen arrisku zaharrak sakondu ditu, pobrezia adibidez (Diamond eta Liddle, 2012: 287).

Inbertsio sozialaren paradigmaren bultzatzaileek aurrekontu-murrizketak daudenean handitzen diren «aktibazio trilem»ei aurre egin behar dietela hartu behar dute kontuan. Horren arabera, hiru dira epe motzean eta era berean lortu behar diren helburuak: langabetuak pobreak ez direla ziurtatzea, jarraipen administratiborako sistema deserosoegiak ez direla ziurtatzea eta lanaren hazkundera ziurtatzea diru-laguntzen dependentsia murrizteko (Vandenbroucke, 2011).

Horri gehitu behar zaio pentsioak, osasun eta hezkuntza publikoak maila altuan eskaintzen direnean, herrialdeetako gobernuek erraz lortzen zutela neurrien legitimitate altua, baina gizarte postindustrialean gobernuek arazoak izango lituzketela gutxiengoei bideratzen zaien inbertsio sozialeko zerbitzuak justifikatzeko orduan (Taylor-Gooby, 2004). Inbertsio sozialaren ereduak sorrarazten dituen beste zenbait ardura (Perkins *et al.*, 2004):

- Lan-sorreran egiten duen indar eskasa.
- Testuinguru makroekonomiko neoliberalarekiko konpromisoa.
- Merkatua, printzipio eratzailerik zentrala dela defendatzea.
- Gastu sozial globala ez handitzearen konpromisoa, gastu horren efizientzia hobetuko dela konfiantza izatea.
- Estatu zerbitzuen hornitzaile bezala duen paperaren anbiguitasuna.
- Ingurumen-iraunkortasunari jaramonik ez egitea.

Bestalde, inbertsio sozialaren ikuspuntuak erlazio estua dauka «workfare» politikekin, alegia, lan-merkatu dinamiko eta lehiakorretako gizabanako aktibo eta prestatua lortu nahi duten politikak. Horiek gizabanakoak diru-sarrera publikotik kanpo mantentzeko portaerak eraldatzearen alde daude, pertsona bakoitzak bere burua zaindu dezala, alegia.

Eskubide soziala bezala planteatu ordez, zenbait ongizate-zerbitzu portaera indibidualarekin lotzen dira. Horrela, bakoitzaren bizitza, hartzen diren erabaki eta aukera indibidualen ondorio litzateke. Laval eta Dardot-en (2013: 232-3) aburuz, bizitzako nekeak, ezbeharrak, gaixotasun eta miseriak aukeren kudeaketa eskasaren ondorio lirateke, arriskuak aurreikusteko ezintasunagatik sortzen dira. Inbertsio soziala neoliberalismoaren oinarri horrekin bat dator.

Are gehiago, portaera indibidualarekin loturiko ongizate-zerbitzuak sendotzen badira, onuradunen oniritzia ziurtatzeko, Estatuaren indarra eta kontrola indartuko

da, baita onura horiek kentzeko mehatxuak biderkatu ere. Estatuak portaera indibidualean duen influentzia handitzen da, batez ere lan-merkatuari dagokionez (Dingledey, 2005).

## 6.Ondorio gisa

Bestelako testuinguru batentzat diseinaturiko Ongizate Estatuak ez ditu gaur eguneko arazoak era egokian konpontzen. Egoera horren diagnosis eskaintzen dute inbertsio sozialaren teorialariek. Ikuspuntuaren indargune nagusia Arrisku Sozial Berriek soluziobide berriak behar dituztela defendatzean datza. Egun, lana edukitzeak ez du pobreziatik at mantentzeko bermea ziurtatzen, adibidez.

Inbertsio sozialak politika sozialari garrantzia aitortzen dio, neoliberalismoak ez bezala. Ekonomia globalizatu neoliberalari eta, era berean, Ongizate Estatu gehiago zimurtzeak ekarriko lukeen deslegitimazioari erantzuna eman nahi dien estrategia da.

Arazoei soluziobideak egituratzeko orduan, gizabanakoak arazoan arabera atalka banatu nahi ditu. Horrek errotik zapuzten du bideratu nahi dituzten politiken legitimitatea, zeren unibertsaltasunean oinarritzen zen Ongizate Estatuaren oroimenak oraindik bizi irauten baitu populazioaren baitan. Taldekatze horrek dakarren beste mehatxu bat da ongizatearen zabaltze- eta hobetze-prozesuan, solidaritatean oinarrituriko eskubideen aldeko borroka zailtzea, indibidualizazioa sakontzen dutelako

Bide batez, politika sozialek globalizazio eta gobernuen botere-galeraren ondorioz duten desmerkantilizazio-ahalmena murrizta bada, inbertsio soziala erruak zurrizteko aterpe bihurtzen da, balizko mobilizazioak eten eta merkatura begira dauden gizabanakoak langile txintxo eta prestatuak nahi dituen. Gizabanako horiek dira aldatu behar dutenak, eta bitartean, merkatuaren bidegabekeriaren inguruko gogoeta alde batera uzten dute.

## Bibliografia

- Bonoli, G. (2006): «New social risks and the politics of post-industrial social policies», in K. Armington eta G. Bonoli (ed.), *The politics of post-industrial welfare states: adapting post-war social policies to new social risks*, Routledge, Londres.
- , (2007): «Time matters. Postindustrialization, New Social Risks, and Welfare State adaptation in advanced industrial democracies», *Comparative Political Studies*, **40 (5)**, 495-520.
- Cerny, P.G. (2008): «Embedding neoliberalism: the evolution of a hegemonic paradigm», *The Journal of International Trade and Diplomacy*, **2 (1)**, 1-46.
- Diamond, P. eta Liddle, R. (2012): «Altershock: the post-crisis social investment welfare state in Europe», in N. Morel, B. Palier eta J. Palme, *Towards a social investment welfare state? Ideas, policies and challenges*, The Policy Press, Bristol.
- Dingledey, I. (2005): «Welfare state transformation between workfare and an enabling state: a comparative analysis», *TranState Working Papers*, **21**, <<http://hdl.handle.net/10419/28271>> [Eskuratua: 2012-01-15].

- ELGA (2003): *Asset building and the escape from poverty. A new welfare policy debate*, ELGA, Paris.
- \_\_\_\_\_,
- ELGA (2006): *Starting strong II*, ELGA, Paris.
- Esping-Andersen, G. (2001): «A welfare state for the 21<sup>st</sup> century», in A. Giddens (ed.), *The global third way debate*, Polity Press, Cambridge.
- \_\_\_\_\_, (2002): «Towards the good society, once again?», in G. Esping-Andersen, D. Gallie, A. Hemerijck eta J. Myles, *Why we need a new welfare state*, Oxford University Press, Oxford.
- Europako Komisiao (2001): *Joint report on social inclusion*, Europako Komisiao, Brusela.
- Giddens, A. (1999): *La tercera vía. La renovación de la socialdemocracia*, Taurus, Madril.
- Hemerijck, A. (2011): «The social investment imperative beyond the financial crisis», *European Policy Centre*, <<http://esp.sagepub.com/content/21/5/432>> [Eskuratua: 2013-07-03].
- \_\_\_\_\_, (2012): «Two or three waves of welfare state transformation?», in N. Morel, B. Palier eta J. Palme (ed.), *Towards a social investment welfare state?. Ideas, policies and challenges*, Policy Press, Bristol, 33-60.
- Huber, E. eta J.D. Stephens (2006): «Combating old and new social risks», in K. Armingeon, eta G. Bonoli (ed.), *The politics of post-industrial welfare states: adapting post-war social policies to new social risks*, Routledge, Londres.
- Jenson, J. (2003): «Converging, diverging of shifting? Social architecture in an era of change», *2003 annual meeting of the Canadian Political Science*, <<http://www.cccg.umontreal.ca/pdf/ConvergingDivergingOrShifting.pdf>> [Eskuratua: 2012-04-13].
- \_\_\_\_\_, (2007): «Redesigning citizenship regimes after neoliberalism. Ideas about social investment», *Canada Research Chair in Citizenship and Governance*, Université de Montreal, <<http://www.cccg.umontreal.ca/pdf/Jenson%20RC19%2007.pdf>> [Eskuragarri: 2012-01-23].
- \_\_\_\_\_, (2009): «Redesigning Citizenship Regimes after Neoliberalism. Moving Towards Social Investment», in N. Morel, B. Palier eta J. Palme (2009), *What future for social investment?*, Institute for Futures Studies, Stockholm.
- Jenson, J. eta Saint-Martin, D. (2003): «New routes to social cohesion? Citizenship and the social investment state», *Canadian Journal of Sociology*, **28 (1)**, 77-99.
- \_\_\_\_\_, eta \_\_\_\_\_, (2006): «Building blocks for a new social architectures: the LEGO™ paradigm of an active society», *Policy & Politics*, **34 (3)**, 429-451.
- Jessop, B. (2008): *El futuro del Estado capitalista*, Catarata, Madril.
- Laval, C. eta Dardot, P. (2013): *La nueva razón del mundo*, Gedisa, Bartzelona.
- Midgley, J. (2001): «Growth, redistribution, and welfare: toward social investment», in A. Giddens (ed.), *The global third way debate*, Polity Press, Cambridge, 157-171.
- Morel, N.; Palier, B. eta Palme, J. (2012): «Social investment: a paradigm in search of a new economic model and political mobilisation», in N. Morel, B. Palier eta J. Palme (ed.), *Towards a social investment welfare states? Ideas, policies and challenges*, Policy Press, Bristol, 353-376.
- Perkins, D.; Nelms, L. eta Smyth, P. (2004): «Beyond neo-liberalism: the social investment state?», *Social Policy Working Paper*, **3**, The Centre for Public Policy, University of Melbourne, Melbourne.
- Taylor-Gooby, P. (2004): «New risks and social change», in P. Taylor-Gooby (ed.), *New risks, new welfare. The transformation of the European welfare state*, Oxford University Press, Oxford.
- Vandenbroucke, F. (2011): *Don't drop the social investment strategy but give it more bite*, Progressive Governance, Oslo.

Vandenbroucke, F.; Hemerijck, A. eta Palier, B. (2011): «The EU needs a social investment pact», *Observatoire Social Européen Paper Series*, **5**, <[http://www.ose.be/files/OpinionPaper5\\_Vandenbroucke-Hemerijck-Palier\\_2011.pdf](http://www.ose.be/files/OpinionPaper5_Vandenbroucke-Hemerijck-Palier_2011.pdf)> [Eskuratua: 2012-04-13].



